

# JARDUEREN TXOSTENA 2024

2024ko martxoa

## AURKIBIDEA

---

### ANTOLAKETA EGITURA

1. SAREAK ETA LAGUNTZAILEAK
2. KOMUNIKAZIOA
  1. Zirkularrak
  2. Kudeaketak komunikabideekin
  3. Webgunea
  4. Sare sozialak
  5. Newsletterra
3. BARNE KUDEAKETA
  1. Elkartearen kudeaketa informatikoa hobetzea
4. ZERBITZUAK
  1. Prestakuntza ekintzak
  2. Akordioak hirugarrenekin
  3. Aholkularitza
  4. Laguntzak, dirulaguntzak eta lizitazioak
  5. Lan poltsa
  6. Negozioak sare sozialen bidez hedatzea
  7. Negozioen kudeaketa errazteko tresnak
  8. Newsletterren edizio zerbitzua
  9. Sare sozialen kudeaketa zerbitzua
  10. Iragarki taula
5. JARDUERAK
  1. Sustapen ekintza, tokiko negozioek Athletici ematen dieten babesaren ikusarazteko
  2. 'Merkataritzako ordutegiaren azterketa Getxon' azterketatik eratorritako ekintzak
  3. 2025eko Agenda Dietarioa
  4. Getxoko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Negozioak (III. edizioa). Zure bertsio guztien batura
  5. Getxoko Erakusleihen 34. Lehiaketa
  6. Elkartekideentzako urteko topaketa
  7. GERTU aplikazioa
  8. Getxo Bona
  9. Getxo Modaren 37. edizioa
  10. Bonuen ekimenak
  11. Getxoko erakusleioek bizia hartzen dute (II. edizioa)
  12. Hobetu zure irudia online (IV. edizioa). Kalitatezko edukiak sortu
  13. Animalien lagunak diren Getxoko negozioen sarea
  14. #GetxoEnpresaFreeWifi sarea

## ANTOLAKETA EGITURA

---

Elkarteko gobernu, zuzendaritza eta egikaritza organoak honako hauek dira:

- **BATZAR OROKORRA:** Elkartearen organo nagusia da, kolektiboa eratzen duten negozioetako ordezkari guztiek osatua.
- **ZUZENDARITZA BATZORDEA:** Elkartea zuzendu eta gobernatzen duen organoa; bertan, Elkartetik egiten diren ekimenak jorratzen dira, aldizkako bilerak eginez.
- **KUDEAKETA TALDEA:** Zuzendaritza Batzordeak onetsitako proiektuak kudeatzeaz eta aurrera eramateaz arduratzen diren profesionalek osatzen dute.

2024ko martxoaren 20an, Ohiko Batzar Orokorra egin zen; gai zerrenda honako hau izan zen:

- 2022ko Ohiko Batzar Orokorraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.
- 2023an egindako jarduketa plana eta 2024rako proposatutakoa.
- 2023ko informazio ekonomikoa eta 2024. urterako aurrekontua.
- Atxikitako erakundeak 2023an.
- Zuzendaritza Batzordeko karguak berritzea.
- Eskaerak eta galderak.

Gainera, honako dokumentazio hau editatu da:

- 2023ko urteko memoria.
- 2023ko ekitaldiko informazio ekonomikoa.
- 2024rako jardueren txostena.
- 2024ko ekitaldirako aurrekontua.

## 1. SAREAK ETA LAGUNTZAILEAK

---

2024an, gure elkarteko kide diren 300 bat tokiko negozio ordezkatzeko jarraituko dugu, bai taldean, bai banaka. Horretarako, harremanetan jarraituko dugu toki administrazioekin, foru administrazioekin eta lurralde administrazioekin, etengabe. Halaber, jarraian zehaztuko diren lan espazioetan parte hartzen jarraituko dugu, udalerriko enpresa sarearekin oro har eta, bereziki, negozio elkartuekin lotuta sor daitezkeen beste foro edo ekintza batzuk alde batera utzi gabe:

- Getxoko Udala.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza.
- Bilboko Merkataritza Ganbera.
- Kontsumoko Arbitraje Batzordea.
- Hiriko Zentroak Kudeatzeko Espainiar Elkartea.
- Getxoko Enpresen Kontsulta Foroa.
  - Merkataritza Mahaia.
  - Ostalaritza Mahaia.
  - Enpresen Kontsulta Foroa.
  - Tokiko Kontrasteko Mahai Politikoa.
- Ingurumeneko Tokiko Foroa.
  - Mugikortasunaren astea, 'Autorik gabeko eguna'.

- Hondakinen Kudeaketarako Batzordea.
- Hiri Plangintzaren Aholku Batzordea.
- Berdintasun Batzordea.
- Euskal Merkataritzaren Barometroa.
- Getxoko merkataritzako plan estrategikoa 2022-2027.
- Eusko Jaurlaritzako 2030eko Merkataritza eta Turismo Plan Estrategikoa.
- Euskadi Sariak Merkataritzari eta Turismoari.
- Erosketa guztiz bakarrak proiektua.
- Euskararen Laguna merkataritza sarea.

Elkartea osatzen duten establezimenduak laguntzeko eta sustatzeko asmoarekin, antolatu eta aditzera ematen ditugu, alde batetik, negozio ez-integratuetan egiten dugun jarduera; eta bestetik, gure kolektiboan sartzeak ekar ditzakeen abantailak. Gainera, 2024an zehar, baja hartzen duten negozio elkartuen kopurua murrizteko ekintzak egingo ditugu eta arreta pertsonalizatua eskainiko diegu elkarteko kide diren.

## 2. KOMUNIKAZIOA

---

### 2.1 ZIRKULARRAK

2023ko lehen hiruhilekoan zehar, 40 gai partekatu ditugu gure elkarteko negozioekin. Komunikazio horietan hainbat arlo jorratzen dira, besteak beste araudia, laguntzak, dirulaguntzak, lizitazioak, eta negozioen arteko lankidetzak eta sustapena indartzeko jarduera eta zerbitzuak.

Kideen % 95k nahiago du posta elektronikoko bidez jasotzea jakinarazpenak, eta gainerako % 5ak, berriz, mezularitza bidez.

### 2.2 KUDEAKETAK KOMUNIKABIDEEKIN

Taldean komunikazio agentzia bat dugu, komunikazio planak zehazteko eta elkarteak garatzen dituen proiektuei eta horietan parte hartzen duten negozioei buruzko prentsa oharak, prentsaurrekoetarako deialdiak edo bestelako komunikazio formatuak egiteko. Agentzia arduratzen da, gainera, horiek komunikabide tradizional eta digitalekin kudeatzeaz.

### 2.3 WEBGUNEAK

2024an, [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) komunikazio kate moduan erabiltzen jarraituko dugu. Izan ere, gure jarduera eta zerbitzuen zabalkundea egiteko eta Elkarteko negozioak sustatzeko aukera ematen digu. Era berean, Elkartearekin harremanetan egoteko bitartekoa da, eta sustatzen ditugun proiektuetan izena emateko eta, hala badagokio, zenbateko egokia ordaintzeko aukera ematen du.

Elkarteko negozio bakoitza mapa interaktibo batean kokatuta dago, terminal mugikorretatik ikusteko moduan. Gainera, banakako fitxa bat ere agertzen da, harremanetarako eta kopenari buruzko informazioa, webgunerako eta sare sozialetarako loturak, jardueren deskribapena eta irudiak batzen dituena.

2023an zehar, webguneak 28.084 bisita jaso zituen, 14.902 erabiltzailearenak.

## 2.4 SARE SOZIALAK

Sare sozialen kudeaketan aditua den agentzia bat daukagu, gure Elkarteen komunikazio estrategia diseinatu eta garatzeaz arduratzen dena Facebooken (getxoenpresa), Twitterren (Getxo\_Enpresa) eta Instagramen (@getxoenpresa), 3.300 jarraitzaile baino gehiagorekin.

Agentzia arduratzen da aipatu sareetan profila duten negozioekin aritzeaz, eta, horrez gain, hainbat ekintza garatzen ditu, erabiltzaile gehiago erakartzeko asmoz. Era berean eta 2024. urte hau jarduera-sektoreka eta azpisektoreka egingo dugu, komunikazio kate hau erabiltzen dugu Elkarteko kide diren negozioen informazioa zabaltzeko. Horretarako, lotutako negozio bakoitzaren ikus-entzunezko materiala (argazki sortzaileak eta bideoak) eta elkarrizketak editatzen ditugu negozioko jabe edo arduradunekin.

Gure jarraitzaileen basea handitzeko eta, beraz, egiten ditugun ekimenen, bertan parte hartzen duten negozioen eta gure kolektiboko parte direnen kopurua areagotzeko, Elkarteko kide diren establezimenduak animatzen ditugu sare sozialetan aipatu eta etiketatu gaitzaten, guk argitaratzen dugun edukia partekatu dezaten edo eduki horretan parte hartu dezaten.

## 2.5 NEWSLETTERRA

Hilabetero, buletin digitalak bidaliko ditugu. Bertan, elkarteak garatzen dituen ekintzak, jarduera horietan parte hartzen duten negozioen izenak eta negozio txikien egunerokotasunean erabilgarriak diren hainbat datu jasoko dira, besteak beste.

Buletinako atal bakoitzak [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) webguneko atal bakoitzerako loturak jasotzen ditu, bertara sartu eta informazio zehatzagoa lortzeko. Harpidedunek buletina euskaraz edo gaztelaniaz jasotzea aukeratu dezakete, beren lehentasunen arabera.

2024an zehar, kanal horren bidez 18 gai jakinarazi dira: enpresa sustapeneko jarduerak, elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak eta bestelako gai interesgarriak, adibidez: '*lanbidearteko gutxieneko soldata*', '*Nola lortu publizitate kanpainak TikTok-en sei urratsetari*', '*Oparien itzulketak*', '*Nola hobetu Instagrameko ekintza*', eta abar.

## 3. BARNE KUDEAKETA

---

### 3.1 ELKARTEAREN KUDEAKETA INFORMATIKOA HOBETZEA

Aurreko ekitalditik, Elkartean gure sistema informatikoa ezartzeko hornitzaile eta finantzaketa bila ari gara, gure eguneroko kudeaketa eta errendimendua hobetu ahal izateko, egungo funtzionaltasunak areagotuz eta egiten dugun jarduera sinplifikatuz.

Hasierako aholkularitza fasea garatu ostean, garapen informatikoan lanean ari gara, kudeaketa sistema integrala izateko. Horretarako, bertan sartu ditugu lana eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatu ahal izateko arlo guztiak. Horri esker, gure jarduera garatzeko beharrezko datuak eta informazioa bildu ahalko ditugu, modu eraginkorrangoan, eta, hala, elkarteko kideei ematen diegun zerbitzua hobetu ahalko dugu.

## 4. ZERBITZUAK

---

### 4.1 PRESTAKUNTZA EKINTZAK

Urtean zehar, hainbat prestakuntza saio antolatuko ditugu, parte hartzen duten negozioen titularrak edo langileak profesionalagoak izan daitezen laguntzeko.

Urteko lehen seihilekoan programatutako ekintzak dira:

- Merkataritza-eskaintza digitalizatzeko kasu praktikoak.
- Ikasi aholkularitzak bidaltzen dizun kontabilitate-itxiera irakurtzen
- Lokalaren alokairua negoziatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak eta oinarrizko araudia.
- Manikura-pedikurako teknika aurreratuak
- Jarraitzaileak erosle bihurtzea bezala. Gustatzen zait erosten dizudana.
- Ikasi bideo laburrak egiten Instagram, tiktok eta Youtube Shorts-erako.

Saio hauek gai bakoitzeko adituek gidatuko dituzte, eta establezimenduen ordutegiarekin bateragarriak diren orduetan emango dira.

### 4.2 AKORDIOAK HIRUGARRENEKIN

Elkarteko kide diren negozioek finantza, publizitate eta sustapen produktu eta zerbitzuak baldintza berezietan eskuratzeko aukera dute.

<https://www.getxoenpresa.com/eu/zerbitzuak/akordioak-beste-batzuekin/> webgunean zein akordio dauden eta zein enpresarekin gauzatu diren zehazten da.

Aurten, egungo baldintzak hobetzeko eta gure enpresa kideentzat erabilgarriak izan daitezkeen hitzarmen berriak ezartzeko ahalegina egingo dugu; esaterako, zenbait profil profesional kontratatzeko, sare sozialak kudeatzeko.

### 4.3. AHOLKULARITZA

Urtearen hasieratik, elkartekideen 32 kontsulta erantzun ditugu, hainbat gai hizpide: legezko tasunari buruzko gaiak, jardueraren garapenean eragina duten alderdiak, udal lizentziak, baimenak...

Gainera, negozio txikien jardueran eragina duten 3 araudiren berri eman dugu: lanbidearteko gutxieneko soldata, erretiroaren ziozko pentsioa, inauterietako ordutegia eta abar.

### 4.4 LAGUNTZAK, DIRULAGUNTZAK ETA LIZITAZIOAK

Urtarriletik, 7 laguntza eta dirulaguntzaren berri eman dugu, honako arlo hauetan: kontratazioa, berrikuntza, inbertsioa, nazioartekotzea, publizitate materialaren erosketa edo ibilgailu elektrikoak. Halaber, 3 lizitazioen berri eman dugu: Usategiko ustiapena, Ereagako hondartzako txosna, eta arratoiaren garbiketa zerbitzua. Gainera, laguntzen eta dirulaguntzen 11 espediente kudeatu ditugu.

Aurrerantzean ere, hainbat erakundek eta entitatek gure negozio bazkideei kudeatzen dizkieten laguntzen eta dirulaguntzen eskabideak eta justifikazioak jakinarazten, aholkatzen eta izapidetzen jarraituko dugu, eta espediente bakoitza amaitu arteko jarraipena egingo dugu, gure taldeko negozioetarako interesgarriak izan daitezkeen lizitazioez gain.

### 4.5. LAN POLTSA

Zerbitzu honen bidez (gure Elkartean sartzen diren negozioentzat bakarrik), aurrez aukeratzen ditugu langileak eskatzen dituzten negozioen beharretara ondoen egokitzen diren curriculumak, ohiko kontratueterako, praktiketarako nahiz beste modalitate batzuetarako. Gainera, laguntza ematen dugu hautagaiak aukeratzeko prozesu osoan, eta lan kontuei buruzko orientazioa eskaintzen dugu (*kontratu mota egokiena, kontratazioak finantzatzeko dirulaguntza posibleak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak...*). Halaber, Elkarteko instalazioetara sartzeko aukera ematen diegu hala behar dutenei, langileak hautatzeko elkarrizketak egin ditzaten.

2024an zehar, elkarteko 4 negoziok erabili dute zerbitzu hau estetizista bat eta bi saltzaileak kontratatzeko.

### 4.6 NEGOZIOAK SARE SOZIALEN BIDEZ HEDATZEA

Elkarteko sare sozialek dituzten 3.300 jarraitzaileak aprobetxatzen ditugu gure elkarteko negozioak promozionatzeko.

Elkarteko negozio denei hedapena egiten eta ikusgarritasuna ematen jarraituko dugu, banan-banan, gaur egunera artekoaz bestelako formatu batean. Horretarako, sare sozialen kudeaketan espezializatutako agentzia bat dugu, eta bera arduratuko da establezimendu edo bulegoak bisitatzeaz egiten duten jarduera-sektorea eta -azpisektorea kontuan hartuta, argazki sortzaileak egiteaz eta negozioaren ikus-entzunezko txiki bat editatzeaz. Gainera, elkarrizketak egin ahal izango zaizkie negozioen jabeen edo arduradunen. Hartara, eduki interesgarria eman ahal da elkarteko establezimenduetan lan egiten duten pertsonen buruz, sare sozialetan hedatu eta partekatzeko.

## 4.8 NEGOZIOEN KUDEAKETA ERRAZTEKO TRESNAK

Elkartean hainbat tresna jartzen ditugu negozioen eskura, negozioen eguneroko kudeaketa errazteko. Gainera, horiek erabiltzeko laguntza behar dutenei aholkularitza ematen zaie.

Tresna horien artean daude:

- Negozioetarako hizkuntza ez-sexistaren gidaliburua.
- Googlen My Business tresnan negozioaren profila sortzeko/egokitzeko eskuliburua.
- Canva erabiltzeko eskuliburua (euskarri grafikoen diseinua).
- Argazkiak editatzeko eta egokitzeko eskuliburua.
- WhatsApp Business instalatzeko eta erabiltzeko eskuliburua.
- Newsletter txantiloia, Mailchimp bidez newsletterrak egin eta bidaltzeko.
- Aipatu ordainsari erregistroari buruzko araudia betetzeko txantiloia.

## 4.8 NEWSLETTERREN EDIZIO ZERBITZUA

Aurten martxan jarri dugun zerbitzu honetan 6 buletin informatibo digital editatuko dira, honako informazio hau jasoz: establezimenduaren datuak, merkaturatzen diren produktuak edo ematen diren zerbitzuak, edo negozioaren ohiko edo balizko bezeroei bidaltzeko interesgarriak izan daitezkeen bestelako datuak.

Zerbitzuak eskuliburu bat eta beharrezko aholkularitza ematen ditu, elkarteko negozioak buletinak bidaltzeko zerbitzua erabil dezan eta newsletterrak kudeatzen jarrai dezan, zerbitzua ematen amaitzen duenean.

Zerbitzua egikaritzeko faseak dira:

1. Aurretiazko bilera egitea, negozioak buletin informatibo digitaletan helarazi nahi duen informazio mota ezagutzeko.
2. Newsletter bakoitzean garatu beharreko gaiak partekatzea eta planifikatzea.
3. Buletinak egitea eta beharrezko aholkularitza ematea, bidalketa egiteko.
4. Estatistiken txostena bidaltzea: irekieren kopurua, huts egindako mezu elektronikoak, bidalitako buletin bakoitzean egindako klikak...

## 4.9 SARE SOZIALEN KUDEAKETA ZERBITZUA

Zerbitzu honen bidez, 3 hilabetez integralki kudeatuko ditugu gure zerbitzua nahi duen merkataritza, ostalaritza edo zerbitzuen arloko negozio bakoitzak dituen sare sozialetako profilak.

Zerbitzu honetan ondokoak sartzen dira:

- Aldez aurreko bilera egitea, hobeto ezagutzeko negozioa, helarazi nahi dena, mezu motak, daukan edo eduki dezakeen materiala eta abar.
- Sare sozialetako komunikazio plana zehaztea eta negozioaren oniritzia jasotzea.
- Egin beharreko argitalpenetan erabil daitezkeen irudiak, testuak, promozioak eta linkak batzea.
- Argitalpenen edukia sortzea.



- Negozio bakoitzaren sare sozialak berrikustea: iruzkinak erantzutea, like bakoitza ikustea, estatistikak egitea, etab.
- Estatistiken txostena egitea eta negoziara bidaltzea.
- Zerbitzuaren balorazio bilera egitea eta sare sozialak kudeatzeko zerbitzua abantaila baldintzetan ematen jarraitzen duen adituarekin harremanetan jarri ahal izatea.

#### 4.10 IRAGARKI TAULA

[www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) webgunearen bidez, gure elkarteko negozioek beste establezimendu bazkide batzuei zuzendutako mezuak partekatzeko aukera ematen da. Mezu horietan hainbat gai jorratu daitezke: berrikuntzak, ekitaldiak, inaugurazioak, produktu eta zerbitzu berritzaileen aurkezpena, titulartasun edo kokapen aldaketak, lortutako sariak edo aintzatespenak... hau da, negozioko alderdi esanguratsuak.

## 5. JARDUERAK

---

2024. urterako, honako proiektu hauek egikaritzeko asmoa dugu, betiere horretarako beharrezko babesa eskuratzen badugu. Hala ere, Elkarteko negozioentzat interesgarriak izan daitezkeen beste proposamen batzuk aztertu eta garatu ahalko ditugu.

### 5.1 SUSTAPEN EKINTZA, TOKIKO NEGOZIOEK ATHLETIC-I EMATEN DIOTEN BABESA IKUSARAZTEKO

Apirilaren finalean Athletic babesten duten negozio txikiei ikusgarritasuna emateko, ekintza hau garatu dugu. Horren bidez, Getxoko negozioak animatuko ditugu beren erakuslehoak edo, hala badagokio, establezimendu edo bulegoen kanpoalde nahiz barrualdeak apain ditzaten.

Elkarteko ostalaritza establezimenduetako batean zozketa bat egingo dugu tokiko negozioek emandako opariekin. Zozketa publiko horretara gerturatu ahalko dira ekintzan parte hartu duten negozio guztiak. Era berean, ekimena sustatzeko eta bertan parte hartzen duten negozioak indartzeko kanpaina bat egingo du Getxon eta inguruko herrietan, eta, horrez gain, ekintzan parte hartuko duten establezimenduen artean zozketatuko diren opariak eman dituzten establezimenduen berri emango dugu.

### 5.2 'MERKATARITZAKO ORDUTEGIEN AZTERKETA GETXON' AZTERKETATIK ERATORRITAKO EKINTZAK

2023aren amaieran, "Merkataritzako ordutegien azterketa Getxon" izeneko azterketa egin genuen, Ikertalde aholkularitza taldearen babesarekin. Azterketan eskaria ikertu zen, eta 770 pertsonaren datuak jaso ziren (330 etxe ingururen ordezkari). Getxoko merkataritza jardueraren ia % 100a aztertu zen (*elikadura, pertsonaren eta etxearen ekipamendua, eta beste jarduera batzuk, esaterako, jostailuak, gailu elektronikoak, liburuak, opariak eta abar*).

Urteko lehen seihilekoan, komertzioekin lotutako ondorioak aztertu eta hausnarketa taldeak osatuko ditugu, merkataritza jardueraren azpisektoreen eta auzoen arabera. Halaber, merkatariekin egiaztatuko ditugu azterketan proposatutako ekintzetako batzuk, esaterako Gabonak bezalako egun seinalatuetan edo ekitaldi berezien ospakizunetan ordutegiak aldatzeko proba pilotuak edo Getxoko leku desberdinetan eskariak jasotzeko armairuak jartzeko aukera.

Helburua irekiera ordutegi eraginkorragoak, arrazionalagoak eta jasangarriagoak bilatzea da, merkataritzaren jardura hobetzeko eta, era berean, kontziliazioa errazteko eta tokiko negozio txikietan ekintzaileen jarraitutasuna sustatzeko.

### 5.3. 2025EKO AGENDA-DIETARIOA

Azaroan, elkarteko enpresei eta gure jardura eta zerbitzuen garapena babesten duten erakunde eta instituzioei Elkartearen 2025erako agenda bidaliko diegu.

Agenda hori eguneko formatuan antolatzen da, eta hartzailearen izena eramango du. Horrekin batera, liburuxka bat egongo da, publizitatea egiteko. Hala, elkarteko enpresen direktorio bat sortuko da, jardura azpisektorearen arabera antolatuta. Horrez gain, 2025erako jaiegunak zerrendatuko dira.

### 5.4 GETXOKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU NEGOZIOAK (III. EDIZIOA). ZURE BERTSIO GUZTIEN BATURA

Ekimenaren hirugarren edizioa izango da. Proiektuan parte hartzen duten negozioek banakako bideoak sortuko dituzte beste behin. Bideo horietan gai edo istorio komun bat landuko da. Hala, guztien artean hari gidari bat osatuko da, jendearentzat interesgarria izan dadin. Aurreko edizioan, negozio partaide bakoitzari buruzko bitxikeriak jaso ziren.

Materiala sortutakoan, prestatutako edukiaren eta proiektuaren parte diren negozioen publizitatea egingo dugu. Partaide bakoitzak bere bideo pertsonalizatua jasoko du, eta bere material propioa eta gainerako partaideena zabaltzera animatuko dugu, kontuan hartuta hari bera jarraitzea interesgarria dela jendearentzat, bai egungo bezeroentzat bai agertu daitezkeenentzat.

Komunikabide desberdinak erabiliko ditugu (barrukoak eta kanpokoak), ekimenaren nahiz negozio partaideen berri emateko eta udalerriko eta inguruko herrietako auzokideei tokiko negozio txikiak mantentzearen garrantzia ezagutarazteko.

### 5.5 GETXOKO ERAKUSLEIHOEN 34. LEHIAKETA

Azaroaren erdialdetik aurrera, Getxoko komertzio, hotel-taberna-jatetxe eta zerbitzu negozio txikiek lehiaketaren 34. edizioan parte hartu ahaliko dute. Parte hartzeko aukeren artean dago erakusleho fisikoak aurkeztea (*establezimenduaren kanpotik ikusten diren elementuak*) edo/eta erakusleho birtualak aurkeztea (*webgunea edo sare sozialeko profila*).

Erakusleho apainketan, teknologian eta, oro har, apaingarrietan esperientzia zabala duen epaimahai profesionalak ebaluatuko ditu lehiaketara aurkeztutako proposamenak, sari interesgarriak jaso ditzaten. Aurreko edizioan 38 opari lote banatu ziren.

Abenduan, erakusleho irabazleen zerrenda argitaratuko da. Horrez gain, sariak banatzeko ekitaldia egingo da, partaideek eta irabazleek egindako lana aitortzeko. Aurreko edizioan 150 pertsona baino gehiago etorri ziren. Gainera, mapa interaktibo bat egingo da, parte hartu duten erakuslehoak bisitatzeko ibilbideekin. Horrez gain, komunikazio kanpaina handi baten bidez, parte hartu duten eta irabazle suertatu diren erakuslehoen berri emango da.

Lehiaketa oso ekimen garrantzitsua da, eta herrian oso errotuta dago. Hori dela eta, aurreko deialdian 121 erakusleihok parte hartu zuten.

## 5.6 ELKARTEKIDEENTZAKO URTEKO TOPAKETA

Elkartea osatzen duen kolektiboan kide asko eta desberdinak daude. Horregatik, horiei guztiei elkar ezagutzeko eta modu informal aritzeko topaleku bat eskaintzen diegu. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu elkarteko kideek elkarteko beste negozio batzuetan egitea erosketak edo jasotzea zerbitzuak. Horregatik, egokia begitantzen zaigu elkar ezagutzeko "eszenatokiak" eskaintzea, eta, hala, aukera berriak sortu eta negozio partaideen ordezkarien harreman sarea handitzea.

Ekitaldia maiatzean egingo dugu, eta bertaraten direnak beren negozioarekin identifikatzera eta horiek ezagutzera edo erlazionatzera bideratutako ekintzak egingo ditugu.

## 5.7 GERTU APLIKAZIOA

GERTU tokiko negozioetarako aplikazio eskusiboa da, eta, bertan, ez dute parte hartzen ez kate handiek ezta online plataformek ere. Martxan jarri zenetik, 7.700 pertsona baino gehiagok deskargatu dute aplikazioa eta 30 udalerrri baino gehiagotan dago. GERTUren bidez, kontsumitzaileek elkarteko negozioetako eskaintzak, promozioak eta datuak ikus ditzakete. Android eta IOS gailuetan deskargatu daiteke.

GERTU aplikazioa erakusleho digital eta fisikoa da. Izan ere, eskaintzak edo promozioak aprobeztatzeko, bezeroek establezimendu partaideak bisitatu eta eraginkor bihurtu behar dituzte. Negozio bakoitzak 4 kanpaina mota balia ditzake: 'Beherapenak', 'Bezero berria', 'Fidelizazioa' eta 'Bestelako promozio ekintzak'. Parte hartzeko, aski da eskaintza edo promozioa eramatea (gehienez ere 4 erabili ahal dira).

Gainera, ekimeneko establezimendu partaide bakoitza Getxoko mapa batean geolokalizatua dago, eta deskribapen fitxa bat dauka, argazki, kokaleku, harremanetarako datu eta jardueraren zehaztasunak jasotzen dituena. Bestelako datuak ere eskuratu daitezke, besteak beste deskarga kopurua, maiz ibiltzen diren erabiltzaileak eta establezimendu bakoitzean balioztatutako promozioak.

Urtean zehar proiektu honekin jarraituko dugu, eta GERTU aplikazioaren parte diren negozioen kopurua areagotzeko ahalegina egingo dugu, haren erabilera sustatzen duten ekintzez gain. Hilero egingo dugun ekintzen artean diru bonuak zozketatuko dira, aplikazioan parte hartzen duten negozio getxoztarretan erabiltzeko.

## 5.8 GETXO BONUA

Getxoko Udalak sustatutako ekimena da Getxo Bonua, zertarako eta Getxoko komertzioetan erosketak sustatzeko, garbitegi eta tindategi, ile-apaintzaile, edertasun saloi eta arropa konponketen negozioetan kontsumitzeko, eta "Turismo Planak" proiektuko parte diren eta "Getxon gozatzeko planak 2024" kanpainara atxikita dauden aisia enpresen zerbitzuak baliatzeko.

2024an, bi bonu kanpaina egin dira: lehena martxoaren 14tik (16.070 bono) eta bigarrena urriaren 17tik (15.100 bono). Bi kasuetan, kanpainen iraupena bonuak agortu arte hedatuko da.

Horretarako, 1. edizioan, atxikitako 264 negozioetako kontsumoa eta erosketak finantzatzen dira (horietatik 82 dira Elkarteko kide). Bi beherapen mota daude: hurrenez hurren, 5 eta 10 euroko beherapena 20 eta 40 euroko (eta multiploak) erosketak egiteagatik. Bezero bakoitzak, gehienez, mota bakoitzeko hiru bonu jaso ahal izango ditu, eta erosketa/kontsumo bakoitzean lau bonu erabili ere. Elkarteko negozio bakoitzak, gehienez, 1.200 euro banatu ahal izango ditu bonuen bidez, edizio bakoitzean.

Udalak baldintza batzuk ezarri ditu, bonuak azpisektore hauetan erabiltzeko:

- Ile apaintzaileak eta estetika zentroak: produktuetan soilik aplikatu daiteke.
- Estankoak: ezin da tabakoan aplikatu.
- Optikak: ezin da eskarrietan aplikatu; gastuaren eta ordainketaren eragiketa kanpainaren datetan erregistratu behar da.
- Farmaziak: ezin da medikamentuetan aplikatu; medikamentuen erosketaren ordainagiria aparte joango da.
- Elikadura: azalera handiak ez dira sartzen.

## 5.9 GETXO MODAREN 37. EDIZIOA

Estatuko iparraldean moda sustatzen duen ekitaldi nabarmenetako bat da Getxo Moda. Sektore hauetako profesionalentzat eta diseinuaren eta estilismoaren azken joeren gaineko interesa dutenentzat ezinbesteko hitzordua da.

Ekitaldiaren 37. edizioan hainbat jarduera egingo dira, besteak beste desfileak, Getxon moda, osagarri eta irudi pertsonalaren sektorean lan egiten duten eta lehiaketan parte hartzen duten komertzioentzat erakusleho izan dadin eta publizitatea egin dezan. Gainera, talentu berriek eta diseinatzaile ospetsuek parte hartuko dute.

Komunikazio eta promozioko kanpaina handi bat egingo da eta, horren barruan, kalitate handiko material grafikoa, bideoak eta beste baliabide batzuk sortuko dira. Horrez gain, ekintza zehatzak egingo dira sare sozialetan, publizitatea emango da komunikabide handietan..., proiektuan parte hartzen duten Getxoko komertzioen proposamenak eta ekitaldiko programa osatzen duten ekintzak ezagutzera emateko.

## 5.10 BONUEN EKIMENAK

Toki administrazioko erakundeek martxan jartzen dituzten bonu programei buruzko informazioa emango dugu, eta interesa duten negozioen atxikipena kudeatuko dugu, bai eta programa bakoitzean eskatzen den beste edozein izapide ere.

## 5.11 GETXOKO ERAKUSLEIHOEK BIZIA HARTZEN DUTE (II. EDIZIOA)

Proiektu honen bidez, oinezko eta/edo bezeroen arreta piztu eta harridura aktibatu nahi dugu, eta proiektura batzen diren Getxoko negozio txikien kanpoaldean edo/eta erakusleihenetan esperientzia original bat eskaini.

Berriz ere, ekimenaren bigarren edizioan, aktore profesionalak izango ditugu, establezimendu partaide bakoitzean eskaintzen diren produktuak/zerbitzuak nabarmentzeko istorio bat sortu dezaten. Aktoreek beharrezko jantziak, atrezzoak eta bitarteko tekniko materialak (*adibidez: argiztapena eta soinua*) eta giza baliabideak edukiko dituzte, proiektuan parte hartzen duen negozio bakoitzean ekintza behar bezala garatzeko.

Antzezlanak proiektuan parte hartzen duen negozio bakoitzerako pertsonalizatuko dira, baina guztiek dinamika eta "egiteko modu" bera partekatuko dute.

Jardueraren eta negozio partaideen publizitatea egingo da komunikazio plan integral baten bidez, eta, horretarako, barruko eta kanpoko komunikabideak erabiliko dira. Era berean, profesionalen talde bat egongo da, establezimendu partaideetan egindako emanaldien bideoak grabatu eta editatzeko. Bideo horiek kanal digitalen bidez zabalduko dira. Gainera, materiala proiektuan parte hartzen duten negozioen eskura jarriko da, beren komunikazio kanaletan erabil dezaten.

## 5.12 HOBETU ZURE IRUDIA ONLINE (IV. EDIZIOA). KALITATEZKO EDUKIAK SORTU

Kontuan hartuta proiektuaren aurreko edizioan parte hartu zuten negozioen % 85k berriz ere parte hartuko lukeela eta % 90 sortutako materiala erabiltzen ari dela, ekimen honekin jarraituko da. Hala, proiektuan parte hartzen duten negozioen eta, oro har, Getxoren irudia modernizatzen eta berritzen saiatuko gara.

Proiektuan kalitate altuko material grafikoa sortuko da, bertan parte hartzen duen negozio bakoitzak bere online komunikabideetan erabil dezan, esaterako web atarian, sare sozialetan, blogetan, newsletterretan eta abar.

Proiektuan parte hartzen duen negozio bakoitzak enpresa hornitzailearekin adostuko du, banaka, zer material grafiko mota erabiliko den eta zein eduki izango duen. Ondoren, argazki saio bat egingo da. Horren barruan produktuak, zerbitzuak, erretratu korporatiboak, lokalaren irudiak edo beste era bateko irudiak sartu ahalko dira. Saioa amaitutakoan, publizitate mailan inpaktu gehien duten argazkiak aukeratuko dira. Irudi horiek editatu, prestatu eta partaideei emango zaizkie, bitarteko digitaletan erabiltzeko.

Elkarteak lan handia egingo du proiektua eta bertan parte hartzen duten negozioak aditzera emateko.

### 5.13 ANIMALIEN LAGUNAK DIREN GETXOKO NEGOZIOEN SAREA

Kontuan hartuta Getxok 7.500 txakur dituela altan EAeko Animalien Identifikazio Erregistroan, 2023an "Animalien lagunak diren Getxoko negozioen sarea" sortu genuen. Horren bidez, konpainiako animalien sarrera baimentzen duten komertzio, ostalaritza negozio edo zerbitzuen berri ematen da. 2024an zehar, Sareak zabalik jarraituko du bertan parte hartu nahi duten negozio guztientzat.

Halaber, 'Txakurrak BAI – Beren pixa EZ' lelopean, ekimen hori baliatzen jarraituko dugu bizikidetzara arau jakin batzuk errespetatzeko premiaren inguruan kontzientziatzeko; zehazki, txakurrek establezimenduen kanpoaldean pixa ez egitearen garrantziaren inguruan.

Sareko kide den negozio bakoitzari bereizgarri bat ematen zaio establezimenduaren kanpoaldetik ikusteko moduko leku batean jartzeko, bai eta produktu espezifikoaren sorta bat ere (*'Jardunbide egokien dekalogo'*, *edontzia*, *bezeroei emateko pixa garbitzeko botilak*, etab.)

Zabalkunde kanpaina nabarmena egingo dugu Getxon eta inguruko herrietan, sarea zein sareko negozioak ezagutzera emateko. Besteak beste, mapa interaktibo bat sortuko da, sareko establezimenduak geolokalizatu ahal izateko, eta sarearen promozioa egiteko bideo bat prestatuko da.

### 5.14 #GETXOENPRESAFREE WIFI SAREA

Proiektu honen bidez, establezimendu partaideek interneterako sarbide seguru eta doakoa eskaintzen diete beren bezeroei, wifi bidez, datu pertsonalak eman behar izanik gabe.

Era berean, proiektuan parte hartzea bezeroen datuen informazio iturri garrantzitsua da, adibidez: *zenbat pertsona doazen establezimendura, zenbat sartzen diren negozioan, batez beste zenbat denbora ematen duten barruan, fideltasun tasa, sarerako konexioen kopurua*, etab.

2024an, Elkarteko negozioei #getxoempresafreewifi sarea edukitzeko aukera eskaintzen jarraituko dugu. Sarea martxan jarri zenetik, milaka pertsona konektatu dira bertara eta, hala, Getxoko egoiliar eta bisitarien erosketa eta kontsumo esperientzia hobetu egin da.

GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK zenbakia duenak, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpenak bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoaren bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta baimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu. Horretarako jo arduradunarengana: Arene kalea 22, Getxo, 48991, Bizkaia. Gutunean "RGPD" (Datuen Babesaren Araudi Orokorra) erreferentzia aipatu beharko duzu.